

PRENTSA OHARRA

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA HIESA-REN AURKAKO EKINTZAREN EGUNA DELA ETA

HIESaren aurkako Ekintzaren Eguna dela eta, Irungo Udaleko Bozeramaileen Batzordeak aho batez erabaki zuen **HIESaren aurkako Ekintza Egunari buruzko Parisko Adierazpen** hau onestea:

"HIESari erantzuteko une historiko erabakigarria bizi dugu. Aurrerabide zientifikoei, jarduera komunitarioari eta helburu partekatu batzuk xede dituen konpromiso politikoari esker, 2030. urterako HIESaren mundu mailako izurriteari amaiera emateko benetako aukera dugu orain. Hiriak aspalditik daude lehen lerroan HIESari erantzuteko garaian, eta une honetan egokiera ezin hobean daude 2020. urtean 90-90-90 xedeak lortzeko – GIB birusarekin bizi diren pertsonen % 90ek beren egoera serologikoaren berri izatea, beren egoera serologikoa ezagutzen duten pertsonen % 90ek tratamendua jasotzea, eta tratamendua jasoko duten pertsonen % 90ek birusaren eragina gainditzea– ekintza bizkorak gidatzeko.

GIB birusaren bidezko infekzio berri guztiak geldiarazi ditzakegu eta HIESarekin lotutako heriotza guztiak, tuberkulosiak eragindakoak barne, saihestu ditzakegu. Estigmari eta diskriminazioari amaiera eman diezaiekegu. Beren biziari eutsi ahal izateko, hiritar guztiek izan behar dute sarbidea GIBarekin eta tuberkulosiarekin zerikusia duten prebentzio-, tratamendu-, arreta- eta laguntza-zerbitzuetan.

Laguntzen badute, mundu mailako oihartzuna izan ditzaketen tokiko neurriak har ditzakete hiriek. Gure irismena, azpiegiturak eta giza gaitasuna aprobetxaturik, herritar guztientzako etorkizun bidezkoagoa, inklusiboagoa, oparoagoa eta iraunkoragoa sortuko dute hiriek, herritar horien sexua, adina, egoera ekonomikoa edo soziala eta joera sexuala edozein dela ere.

ALKATEOK HONAKO KONPROMISO HAUEK EGITEN DITUGU GEURE:

1.- Hirietan 2030. urterako HIESaren izurriteari amaiera ematea

GIBaren tratamenduari dagokionez, 2020. urterako 90-90-90 xedeak lortzeko konpromisoa egiten dugu geure. Horrenbestez, bizkor murriztuko dira GIBaren bidezko infekzioen eta HIESarekin lotutako heriotzen kopuruak –tuberkulosiak eragindakoak barne–, eta bizkortu egingo da HIESarekin 2030. urterako amaitzeko prozesua. Antzemateko, tratatzeko eta aurrea hartzeko zerbitzuetara sarbide iraunkorra eskaintzeko konpromisoa egiten dugu geure. Amaituko dugu estigmarekin eta diskriminazioarekin.

2.- Pertsonak egiten dugun guztiaren erdian kokatzea

Batez ere kalteberak diren eta baztertuta bizi diren pertsonak izango ditugu xede. Aintzat hartuko ditugu giza eskubideak, eta inor ere ez dugu bazterrean utziko. Toki mailan jardungo dugu, geure komunitateekin elkarlanean, erresistentzia handiko

jendarte osasuntsuaren eta garapen iraunkorraren bidean mundu mailako laguntza sustatzeko.

3.- Arriskuaren, kalteberatasunaren eta transmisioaren arrazoiak aztertzea

Pertsonak GIBaren eta beste gaixotasun batzuen aurrean kalteberak izatea eragiten duten faktoreak aztertzeko baliabide guztiak erabiliko ditugu, baita udal ordenantzak eta beste tresna batzuk ere. Estu lan egingo dugu komunitateekin, zerbitzuen hornitzaileekin, legea betearazteaz arduratzen direnekin eta beste erakunde batzuekin, baita bazter-egoeran bizi diren herritar kalteberekin ere, bazter-auzoetan bizi direnekin, desplazatuak direnekin, emakume gazteekin, sexu-langileekin, droga injektatzen dutenekin, immigranteekin, sexu harremanak beste gizonekin dituzten gizonekin eta transexualekin, guztiekin, tolerantzia sortzeko eta sustatzeko xedearekin.

4.- HIESari emandako erantzuna baliatzea gizarte-aldaketa positiboa gerta dadin

Berdintasunean oinarritutako gizarteak, gizarte inklusiboak, hartzaileak, erresistentzia handikoak eta iraunkorrak sortzeko gizarte-aldaketa berritzailea sustatuko du gure aitzindariak. Osasun- eta gizarte-programak bateratuko ditugu zerbitzuak eskaintzeko, baita GIB, tuberkulosi eta beste gaixotasun batzuekin lotutako zerbitzuak eskaintzeko ere. Aurrerabide zientifikoak, teknologia eta komunikazioa baliatuko ditugu aipatu helburua lortzeko.

5.- Tokiko premiei ihardesteko erantzun egokia sortzea eta bizkortzea

Zerbitzu berritzaileak, seguruak, irisgarriak, bidezkoak eta estigmatik eta diskriminaziorik gabeak garatuko eta sustatuko ditugu. Parte hartzea eta komunitatearen aitzindariak bultzatuko eta sustatuko ditugu eskaera emendatzeko eta tokian tokiko premiei erantzuneko dieten zerbitzuak eskaintzeko.

6.- Osasun publikorako eta garapenerako baliabideak mobilizatzea

Osasun publikoaren aurrean konpromiso irmoa erakutsirik eta HIESari erantzuteko elkarrekin inbertituz gero, inbertsio hori sendoa izango da gure hirien etorkizunean, produktibitatea, guztientzako oparotasuna eta ongizatea sustatuko baita horrenbestez. Erantzun bizkorra emateko xedean, geure hirietako baliabideak eta planak egokituko ditugu. Finantzatzeko mekanismo berritzaileak garatuko ditugu eta beste bitarteko eta estrategia batzuk baliatuko ditugu 2030. urterako HIESaren izurritea betikoz amaituta egon dadin.

7.- Buruzagi gisa elkartzea

Adierazpen hau gauzatu dadin, geure egiten dugu ekintza-plan bat egiteko eta hirien sare batera biltzeko konpromisoa. Kontsulta zabal bat egingo dugu interesa duten alde guztiarekin, eta aldiro-aldiro aztertuko ditugu emaitzak geure erantzunak doitu eta bizkorragoak, adimentsuagoak eta eraginkorragoak izan daitezen. Beste hiriei lagunduko diegu eta geure esperientziak, ezagutzak eta ongi dabiltzan eta hobetu daitezkeen alderdiei buruzko informazioa partekatuko ditugu haiekin. Urtero emango dugu egindako aurrerapausoen berri".

Irun, 2015eko abenduak 1